

# IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



Agur  
Pakone

## Kaixo herrikide!!!

Ikasturte hasiera, udazkena, urria... iritsi dira denak bata bestearen atzetik, eta gu ere hemen gara berriz! Ale honekin, Udazken Festarako gonbitea egin nahi dizuegu, herriko eragileen ekintzen berri eman eta udaratik hona gertatutakoa azaldu. Azken hilabeteen berri triste bat ere izan dugu, Mendizorrotz taberna itxi

baitute. Jubilatzea tarteko izan da eta euren gatik poztuko gara, noski! Pakoneko historia biltzen duen erreportaje txiki bat ere baduzue orri hauetan. Bestalde, ez ahaztu Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko pausoak aurrera doazela eta Herri Batzarra egingo da urriaren 21ean. Ez galdu!



## Tintinen abenturak, plazan

Iaz egin bezala, zine saioa izan zen udan plazan, Kultur Mahaiak ataluta. Oraingoan, saio bakarra eskaini zuten, umeei zuzenduta. Uztailaren 29an izan zen, Tintinen abenturetan murgiltzeko aukera izan zuten eta ume eta guraso batzuk gerturatu ziren. Umeentzako emanaldiak erantzun ona izaten duela eta, aurrera begira ere ekimenearekin jarraitzeko asmoa azaldu dute antolatzaileek.

# IKO dendako kanpo aldea espazio seguruagoa da orain

Aurreko ale batean jakinarazi zen moduan IKO dendako kanpo aldea fase ezberdinetan hobetzen joateko asmoa azaldu zuten. Lehen pauso horietako batzuk parkina egokitzea, espaloia txukuntzea eta kanpoaldean bezeroak lasai eserita egoteko mahai bat jartzea izan ziren. Orain, segurtasun aldetik eman da pausorik handiena. Errepidetik duen gertutasunak sortzen zuen arriskua saihesteko, baranda bat jarri dute IKO dendaren aurre alde guztian. Gainera beste mahai bat jartzeko asmoa dutela ere adierazi dute.

Hortaz aparte, birziklapena sustatzeko, zabor ontziak ere jarri dituzte erabiltzaileek zaborrak dagozkien edukiontzietara botatzeko aukera zabalduz. Juntako kideek nabarmendu dute espazio horiek bezero guztientzat erabilgarriak izatea nahi dutela eta beraz arduraz jokatzeko eskatzen dute, zabor ontzien erabilera egokia eginaz eta mahaiak garbi utziaz.

Bestalde, ogia eramateko kotoizko poltsak ere salgai jarri dituztela azaldu dute, aurrez zuten erosketarako poltsen eskaintza zabalduz.

## Eliza atzeko lokala uzteko prest azaldu da apaiz berria

Apaiz berria Jubilatuekin, Herri Kontseiluko hainbat kideekin eta herritar batekin elkartu zen uztailean. Bertan adierazi zien eliza prest dagoela atzeko lokala herriko ekintzetarako uzteko. 2010-2015 urte artean egin bezala, zesio akordio bat sinatzea izango litzateke hurrengo pausua. Sinatu beharreko dokumentua prestatzen ari direla jakinarazi du Herri Kontseiluak eta berri gehiago izatean jakinaraziko dute.

Herri Kontseiluak argitu du, lokala nahiko egoera onean dagoela, baina obra baten beharra duela. Zesioa lortuko balitz, auzolan batzuk egin beharko liriateke guztia egokitzeko. Eta obra egin bitartean, prozesu bat hasi beharko da erabilera zehazteko.



# Euskararen Egunerako egitarau ederra prestatzen ari dira

Euskaraldia ere izango da azaroaren 18tik abenduaren 2ra eta izen ematea zabalik dago.

Hasi dira Kultur Mahaikoak Euskararen Eguna prestatzen. Abenduaren 2, 3 eta 4ean izango dira ekintzak, ostiraletik igandera. Oraindik ez dute egitaraua itxi, baina aurreratu dute umeentzako zine emanaldiak, gazteentzako sexologia tailerra eta zunba saio irekia izango direla. Horrez gain, ikuskizun bat lotzen ari dira eta ziurrenik kantujira ere izango da. Egitaraua zehaztean zabalduko dute ohiko bideetatik.

## Euskaraldia ere bai

Gogorarazi dute Euskaraldia ere

izango dela aurten. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da eta herritarrei dei egiten diete izena eman eta parte hartzeko: «Hitzek ekiteko garaia da!».

Aurreko edizioetan bezala, bi rol egongo dira aukeran: Ahobizi eta Belarriprest. Izena online eman behar da *euskaraldia.eus* helbidean.

Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara

ulertzea da. Bereziki ariketa edo praktika kolektibo bat da. Ariketa horretan maila pertsonalean edota kolektiboan parte hartu ahal izango da. Pertsonalean, bi rol daude aukeran: Ahobizi (Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut; lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot); eta Belarriprest (Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta nor ekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet).

# Zenbait hitzaldi udazkenerako, Jubilatu elkartearen eskutik

Zahartzaroko sexualitatearen inguruan izango dira bi hitzaldi eta beste bat elikadura osasungarriaren inguruan. Herritar guztiei irekiak izango dira.

Jubilatu elkarteak zenbait hitzaldi antolatu ditu udazkenerako. Zahartzaroko sexualitatearen inguruan pare bat, eta elikadura osasungarriaren inguruan beste bat. Sexualitateari loturikoak Ainara Brusau sexologoak eta gizarte langileak emango ditu eta elikaduraren ingurukoak Arantza Lopez-Ocaña sendagile nutrizionistak. Elikaduraren inguruko hitzaldiaren ondoren, sukaldaritza praktika egingo da Jabixu Izaskun sukaldariarekin.

Zehazki honako hauek izango dira udazken honetarako antolatu dituzten hitzaldiak eta datak:

- "Sexualitatea Zahartzarokan":  
Urriak 26, 19:00tan

- "Plazerra eta Ongizatea":

Azaroak 16, 19:00tan.

- "Bizitza eta elikadura osasungarria; gabonetako menuak": Abenduak 14, 17:00tan. Ondorenean Sukaldaritza praktika 18:30tan.

Bizitza eta elikadura osasungarriaren inguruan beste bi hitzaldi ere egiteko asmoa dute, baina datorren urtean izango dira horiek. Datak hurbiltzean zabalduko dute horien inguruko informazioa. Gainera, hitzaldi guztiak herritar guztientzat irekiak direla azpimarratu dute, beraz, interesa duen orok azaltzeko aukera izango du.

## Ikastaroak ere martxan

Hitzaldiez gain, urte hasieratik hasitako ikastaroak berriz ere martxan

direla adierazi dute. Pilates, Pilates aulkian eta Memoria lantzeko ikastaroak hain zuzen ere. Pilateseko 2 modalitateak astearte eta ostegunetan izaten dira, 9:45tan hasita Pilates Aulkian eta ondorenean 11:00tan hasita Pilates arrunta. Memoriako ikastaroa berriz, ostegunetan izaten da goizeko 11:00tan.

Azkenik, urtea amaitu aurretik urteko batzarra ere egiteko asmotan direla azaldu dute. San Tomas egunaren inguruan egin izan ohi dute eta aurten ere inguru horretan egiteko asmoa dute. Hala ere, data eta ordua zehaztean, deialdia zabalduko dutela eta bazkide guztiei informatuko dietela gaineratu dute.

# Eskola Kirola Igeldon antolatu da ikasturte honetan ere

Guraso elkarteak burubelarri ari da lanean ikasturte berria hastearrekin batera. Ikasturte berriari begira, hainbat kontu nabarmendu dituzte. Hasteko, azpimarratu dute Covid-19aren kontrako neurri gabe hasi dela ikasturtea eta oso albiste ona izan dela hori. Horrekin lotuta, goizeko Zaintza zerbitzua eskolako liburutegira bueltatu ahal izan da.

Datuei dagokienean, ikasturte honetan 10 ikasle berri hasi direla jakinarazi dute: 2 urtekoak 8 dira; 4 urtekoa 1; eta 3. mailakoa beste 1.

## Bi talde Eskola Kirolan

Iazko ikasturtean bezala, oraingotan ere Eskola Kirola Igeldon antolatu dela gaineratu dute, Jakintzara joan beharrik gabe. Bi talde osatu

dira: benjaminena eta alebinena.

Bestalde, ikasturte hasiera honekin lotuta, aipatu dute eskolako umeek irteera izan dutela. Urriaren 6tik 7ra joan ziren Astitzera gaua pasatzera, Lehen Hezkuntzatik gorako ikasle guztiak. Eskolatik ere bidali dituzte irteeraren inguruko informazioa eta argazkiak (10. orrian).



Subastan saldutako idiskoetako bat ageri da argazkian. Aldamenean, Longako Joxe Angel Zendoia eta Nerea Zendoia alaba.

# Aurten ere Salamancako ferian izan dira Longa baserrikoak

Irailaren 2tik 6ra bitartean izan zen Salamancako ganadu feria eta iaz bezala aurten ere bertan izan zen Longa baserriko familia. "Blonde de Aquitania" arrazako ganaduaren txapelketan parte hartu zuten eta zenbait sari lortuta itzuli ziren etxera. Aurtengoan ez dute lehendabiziko saririk lortu, baina 4 bigarren sari eta beste 4 hirugarren sari lor-

tuta gustura daudela adierazi dute.

Guztira 22 buru eraman zituzten Salamancara, horietatik 16 txapelketan parte hartzeko eta 6 txahal, behiak txahalarekin batera ateratzen diren sekzioetan parte hartzeko. 16 buru horietatik 3 idiskoak ziren.

Gainera, azken egunean egiten den subastarako 2 idisko eraman

zituzten eta biak saldu zituztela nabarmendu dute. Eta hirugarren idiskoa ere saltzea lortu zuten subastatik kanpo. Subasta amaitzean ganadua kamioian kargatu eta etxerako bidea hartu zuten, pena pixka batekin aurtengoan lehendabiziko posturik lortu ez zutelako, baina pozik 3 idiskoak saldata.

# Batzarra egingo da Igeldoko Tokiko Entitate Txikiaren inguruan

Batzarra urriaren 21ean izango da 19:00etan Itsas Aurren.

Eskumen eta zerbitzuen inguruko proposamen bat prestatu du Siadecok eta horren inguruan hitz egingo da.

Azken Orri Informatiboan jakinarazi zen bezala, Igeldoko Tokiko Entitate Txikiak izan ditzakeen eskumen eta zerbitzuen inguruko proposamen bat prestatu du Siadecok. Horiei lotuta, balorazio ekonomikoak ere egin ditu txostenen. Aste hauetan zehar, TET Batzordea proposamen hori aztertzen aritu da. Udaletxean ere egin zen bilera irailaren 21ean, lehen inpresioak trukatzeko.

Honen guztiaren inguruan hitz egiteko Herri Batzarra antolatu dute Herri Kontseiluak eta TET Batzordeak. Urriaren 21ean izango da 19:00etan. Gaiaren garrantzia ikusita, herritarrei bertaratzeko dei egiten diete.

## Eskumen propioak eta delegatuak

Alde batetik, Igeldoko TETak eskumen propioak izango lituzke. Behin TET erata, zuzenean bere gain hartuko lituzkeenak. Horiek lirateke: Bide publikoak, Parke eta berdeguneak, Hondakinak, Hezkuntza, Kirola, Euskara, Kultur jarduerak eta festak, Hilerrri zerbitzua, Adineko pertsonen sustapena, Partaidetza, gazteria, aisialdia, etabar. Denera, 15 eskumen dira bakoitza bere aurrekontuarekin.

Bestetik, eskumen delegatuak leudeke. Horiek hitzarmen bidez adostuko lirateke nola eraman aurrera. Horien artean leudeke Planeamendu urbanistikoa, Etxe-

bizitza-sustapena, Gizarte zerbitzuak, Ingurumen zerbitzuak eta Turismoa eta ekonomia garapena.

## Hasierako proposamena, abiapuntua

Irailaren 21ean udaletxean egindako lantaldeko bileran, alderdi politiko guztietako ordezkariak begi onez ikusi zuten Siadecok aurkeztutako proposamena. Ekarpen batzuk egin ziren, baita Igeldotik ere, baina abiapuntu bezala ondo zegoela adierazi zuten guztiek.

Ekarpenak batez ere, Hirigintza eta Etxebizitza arloan egin dira Igeldotik, eta hor aurreikusten dira zailtasun gehien.

# Errigorarekin 'Bat egiteko garaia da'

Eskaerak urriaren 22tik azaroaren 10era bitarte egin behar dira.

Eskuorriak IKOn eta Txapelan egongo dira. Online ere egin daiteke.

*Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka*, Errigoraren udazkeneko kanpaina berria martxan da, eta hiru saski izango dira aukeran: saski beltza (55€), saski berdea (65€) eta saski zuria (75€). Eskaerak urriaren 22tik azaroaren 10era bitarte egin behar dira eta horretarako, eskuorriak IKOn eta Txapelan egongo dira. Online ere egin daiteke eskaera helbide hone-

tan: [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus).

Saskien banaketa, berriz, azaro bukaeran edo abendu hasieran egingo da.

## Euskalgintzari laguntzeko

Igeldoko arduradunek gogorarazi dutenez, beti bezala, kanpainako saskien balioaren %25 bideratuko da Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara. Kontuan hartze-

ko bi argipen ere eman dituzte: «*Euskarari puzka* da Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari diru-ekarpena egiten dion Errigoraren kanpaina, eta saskiaren balioa zenbat eta altuagoa, diru-ekarpen handiagoa euskalgintzari».

Beraz, kanpaina honetan saskiak eskatzea bada euren helburuekin bat egiteko modu bat.



Nekane Etxebeste, Esperanza Remiro eta Victor Etxebeste Mendizorrotzeko barran.

# Hiru belaunaldi, ehundaka bizipen

Mendizorrotz taberna-jatetxeak atek itxi ditu. Pako Calonge eta Dolores Lizarazuk sortu zuten. Urte hauetan zehar, hiru generaziok egin dute lan eta sortzaileen bilobei ere iritsi zaie erretiroa hartzeko garaia.

Victor, Nekane eta Espek irailaren 25ean eman zituzten azken otorduak.

Faltan botako ditugu parrillan egindako arrain eta txuletak, etxeko postreak... eta lagunartean jandako eskalope mundialak!

Irailaren 12a da, astelehena, bazkariko lanak bukatuta, Mendizorrotz jatetxean elkartu gara Victor Etxebeste, Nekane Etxebeste eta Esperanza Remiroekin. Atzera kontaketa hasi da. 14 egun besterik ez zaizkie geratzen erretiroa hartzeko. Bizi guztia tabernan lanean pasa eta gero, badute deskan-tsua hartzeko gogo eta premia. 67, 66 eta 65 urte-ekin jubilatuko dira.

## Aiton-amonek sortua

Mendizorrotz taberna edo *Pakone*, Pako Calongek

eta Dolores Lizarazuk sortu zuten, Victor eta Nekaneren aitona-amonek. Otondo Azpi izeneko baserria zen. Bertara joan ziren bizitzera senar-emazteak eta taberna jartzea erabaki zuten (urtea ez dakite ziur). Aurretik sagardotegia ere izan omen zen.

Orduko taberna erabat desberdina zela gogoratzen dute Etxebeste anai-arrebek: «Orain barra dagoen lekuan, bodega zegoen. Eta aurretik ikuilua ere izan zen. Jangela dagoen lekuan, berriz, taberna zegoen eta atzeko partean, komuna, sukaldea eta

komedore txiki bat». Antolaketa aldetik oso xeble zegoela gaineratu dute.

Desberdintasuna ez zen distribuzioan bakarrik, funtzionamendua ere erabat bestelakoa zela diote: «Bezeroak lagunak izaten ziren. Herriko jendea ibiltzen zen eta bakoitzak etxetik ekarritakoa jaten zuten askotan. Eta sukalderaino ere sartzen ziren. Eltzeko tapak altxa eta halaxe erabakitzen zuten zer jan. Beste garai batzuk ziren».

1969/1970 urtean, bigarren generazioarekin etorri zen aldaketa, Dolores Calonge amak eta Victor Etxebeste aitak hartu zutenean tabernaren ardura. Hala ere, ama Dolores, beti aritu izan zen tabernan gurasoei laguntzen. Aita, berriz, aurretik Monte Igeldon aritu zen lanean. Urte horretan egin zuten erreforma eta gaur egun dagoen moduan jarri zuten taberna.

### Bizi guztia tabernan

Txikitako oroitzapenez galdetuta, beti tabernan jolasten ibiltzen zirela diote Victor eta Nekane: «Eta koxkortu ahala laguntzen ere bai, nahiz eta batzuetan jostatzera alde egiten genuen. Buila ederrak izaten ziren tabernatik laguntzera etortzeko eskatuz!».

Txikitatik aritu izan dira anai-arrebak tabernan, eta Espe ere 17 urterekin hasi zen, Victorrekin ezkondu baino lehenago. Tabernaren ardura 1992/1993 urtean hartu zuten, aita jubilatzearekin, orduan pasa ziren hirurak tabernaren jabe izatera. Amak lanean jarraitu zuen beraiekin.



Agur festa trikitixa eta pandero doinuez girotu zuten herritarrek.

### Betiko janaria, betiko erara

Donostiatik eta ingurutik etorritako bezeroak ere asko izan ditu Mendizorrotzek. Beti ibili izan da jendea eta arrakasta horren inguruan galdetuta, betiko janaria eskaintzea izan dela sekretua diote: «Betiko



Oriko apaizak bertso bat eskaini zien hirurei agur festan eta ondoren Sebastian Lizaso bertsolariak ere gauza bera egin zuen.



Irailaren 26an egin zen Mendizorrotz agurtzeko festa. Jende asko gerturatu zen.

janaria prestatu izan dugu guk hemen, amonari eta amari ikasitakoa. Eta hori da jendeak baloratu izan duena. Hori toki gutxitan dagoela esan izan digute eta horren bila etorri izan dira. Orain itxieraren kontuarekin, histeriko daude asko».

### Oso eskertuta

Dударик gabe, Mendizorrotzek funtzio garrantzitsua bete du urte guzti hauetan zehar Igeldon. Taberna baten zerbitzua eman du, bai, baina horrez gain, herritarrek biltzeko gunek ere izan da.

Itxiera dela eta, jendeak esaten dienaren inguruan galdetuta adierazi dute oso eskertuta daudela, jendeak beraiengatik sentitzen duena ikusita. «Gainera, bizitako egoeraren ondoren, pandemia tarteko, jendea bueltatu egin da hona. Urte askotako jendea. Jendeak oso ondo erantzun du eta hori asko eskertzekoa da».

Familia bereko generazio desberdinak izan dira Mendizorrotzeko bezero eta hori bizitzea gauza polita izan dela nabarmendu dute. Horren seinale, anekdota bat ere badute: «Jendea tabernako gauzak eskatzen ari zaigu, rekuerdotarako nahi omen dituzte. Batek aulkia eskatu digu. Oso aulki bereziak dira eta hasiera-hasieratik daudenak. Pertsona hori bere aiton-amonekin etortzen zen txikitari eta orain bere seme-alabekin».

### Lan gogorra eta lotua

Gogoa eta beharra badute atsedeen hartzeko, baina aldi berean pena ere ematen diela aitortu dute. Seme-alaben aldetik jarraipenik ez izateak ere pena

eragiten ote dien galdetuta ezetz diote. «Beraiek beraien bidea egin dute eta horrela behar du. Guk jarraitu genuen gustatzen zitzaigulako, bestela ez genuen aguantatuko. Gainera beraiek jarraitu izan balute, seguru guk oraindik hemen aritu beharko genukeela», diote umorean.

Tabernako lana gogorra dela jakina da eta sektorearen egoeraren inguruan ere argi hitz egin dute: «Oso lan lotua da. Ondo funtzionatuko badu, orduak sartu behar dira, hemen egon behar da. Larunbatak, igandeak, jai egunak... Jendea ez dago horretarako prest eta panorama zaila dago».

Momentuz, Mendizorrotzek ez du jarraipenik izango. Salgai jarri dute eta ikusiko da zer gertatzen den.

### Agur festa, sorpresaz bete

Jatetxea itxi eta biharamunean, agur festa eskaini zuten Victor, Nekane eta Espek. Gerturatu ziren guztientzako jana eta edana izan zen eta giro ederra sortu zen. Hasteko, Aitziber, Mainer eta Ikerrek (hiru herritarrek) sorpresa eman zieten trikitixa eta panderoarekin giroa alaituz. Unai Manterola Orioko apaizak ere bertsoa eskaini zien eta atzetik, Sebastian Lizaso bertsolariak borobildu zuen beste bertso batekin. Momentu hunkigarria izan zen bertakoentzat eta malkoak ez ziren falta izan.

Asko izan ziren gerturatu zirenak, igeldotarrak eta igeldotarrak ez zirenak; dudarik gabe, Mendizorrotz faltan botako dutenak.

Eskerrik asko *Pakone!* Eskerrik asko familia!



# Hiru ikastaro berri antolatu dira aurten

Ikastaroak martxan daude, baina lekua dagoen ikastaroetan apuntatzeko aukera dago oraindik.

Ikasturte honetan, 18 ikastaro antolatu dira eta horietatik hiru berriak dira: xakea, korrika eta frantsesezko mintzapraktika. Denera, 114 ikaslek eman dute izena, haur eta heldu kontuan izanda. Iazko kopuruak zer-txobait hobetu dira.

Ikastaroak honakoak dira: ingelesa, zunba, jostintza, yoga, pianoa, trikitixa, gitarra, marrazketa, break dance, musika tailerra, panderoa, frantsesa, euskal dantza, balleta, euskarazko mintzapraktika, xakea, korrika eta frantsesezko mintzapraktika.

## Yoga, zunba eta dantza, eskolan

Pandemia atzean utzita, aurten berriz Eskola normaltasunez erabiltzeko aukera izango da. Hori



horrela, yoga, zunba eta handien euskal dantza bertan egingo dira. Gainerako ikastaroak kultur etxean izango dira.

## Apuntatzeko aukera

Ikasturtea martxan baldin badago

ere, lekua dagoen ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik. Beraz, interesa izanez gero, harremanetan jartzeko dei egin dute antolatzaileek: 943 31 30 30 / 606 311 734 edo bestela ieltxokulturelkartea@gmail.com.

# Hasi dira pelota saioak, astearte eta ostegunetan

Arratsaldeko 17:30etatik 19:00etara izaten dira saioak. Interesa duenak frontoira azaldu besterik ez du.

Iraila erdian hasi zen Pelota Eskola Igeldon. Ordutik, astearte eta ostegunero izaten dira saioak arratsaldeko 17:30etatik 19:00etara. Aurten, 15 ume dabilta, momentuz. Benjaminak 3, alebinak 9 eta infantilak 3.

Pelota Eskolako arduradunek azaldu dutenez, apuntatzeko aukera badago oraindik. Interesa daukanak, frontoira azaldu besterik ez du. Haur Hezkuntzako umeren batek ere nahiko balu, aukera izango lukeela gaineratu dute.



# Hilabeteko tartean, ekintza ugari egin dituzte Eskolan

Irailaren 8an ekin zioten ikasturte berriari Eskolan eta hilabeteko epean bete-betean sartu dira ohiko martxan.

Azaldu dutenez, ikasturte berri honetan Olatz (HH 3), Maria (HH), M<sup>a</sup> Eugenia (1. Z) eta Itsaso (Aholkulari) irakasleak batu zaizkie.

Taldeak ere aurkeztu dituzte: Txitoak (HH 2), Astoak (HH 3), Barraskiloak (HH 4-5), Leopardoak (1. Z), Piratak (2. Z) eta Infernuaren Gela (3. Z) dira aurtengo taldeen izenak.

Proiektuari dagokionez, lehen hiruhileko honetako proiektua "Gure bazterrak" izango dela jaki-

narazi dute: «Talde bakoitza abiapuntu desberdinetatik abiatuz eta helburu anitz bilatuz inguruan dugunaz arituko da».

## Ekintza ugari

Hilabete honetan zehar ekintza ugari ere egin dituzte. Alde batetik, Zinemaldia ospatzeko, LHko taldeek pelikula desberdinak ikusi zituzten hauen jatorrizko hizkuntzan (Ingelesez): *Sing!* (1. Z), *The Lion King* (2. Z) eta *Jumanji: The next level* (3. Z).

Bestetik, aurten ere Eskolako baratza martxan dagoela azaldu dute HHko ikasleen ardurapean.

Lurra erein dute dagoeneko eta fruituaren zain daude ikasleak.

Horrez gain, irailaren 20an "Eko-Oiz"-eko lagunak izan zituzten Eskolan beste behin, bertako produktuez, kontsumo jasangarriaz eta teknologia garbi eta berrietaz informatzen 2 eta 3 zikloetan.

Azkenik, urriaren 6tik 7ra, LHko talde guztiak Astitzeko aterpean izan ziren txangoan. Gaua pasatze-ra joan ziren. Bertan Mendukiloko kobazuloak bisitatu, buztin eta animalia tailerrak egin, mendimartxak gozatu, diskotekan dantzatu eta primeran pasa zuten.





## «Denon laguntzarekin, primerako Garagardo Azoka antolatu dugu»

Garagardo Azoka egin zen irailaren 23, 24 eta 25eko asteburuan. Antolatzaileek azaldu dute balorazio positiboa egiten dutela: «Egia da aurreko edizioetan baino jende gutxiago ibili dela, baina ibili direnak oso gustora geratu dira. Jeneroa asko baloratu da. Herri-tarren laguntza ere sekulakoa izan da eta asteburu batean 3.500 euro lortu ditugu. Horiek badira nahiko arrazoi pozik egoteko».

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eman zuten herritar guztiei, «denon laguntzarekin primerako Garagardo Azoka antolatu dugu».

Aurtengoa ere, Garagardo Azoka berezia izan da gainerako herrieta-koekin konparatuta. Bertako jakiak egon dira aukeran: tomatea, gindillak, saltxitxak, hirugiharra, hegaluzea, cus-cusa... Beste behin ere, arrakasta izan du honek. Garagardoetan, berriz, Refu, Bizio, Ummagumma, Baobeer eta Meta probatzeko aukera izan da.

### Dirua, herriko materiala erosteko

Lortutako dirua herriko materiala



erosteko erabiliko dela azaldu dute antolatzaileek. Hori horrela, eraba-

ki dute Herri Kontseilua arduratuko dela gestioaz.

# Punta-puntako dantza ikuskizuna izango da Udazken Festan

Udazkena iritsi da eta berarekin batera Udazken Festa ere izango da. Hain zuzen, urriaren 22 eta 23ko asteburuan ospatuko da. Ohi bezala, azokak, bazkariak eta taloek ez dute hutsik egingo. Dena dela, berezitasunak ere izango dira. Larunbatean, punta-puntako dantza ikuskizuna izango da. Haatik dantza konpainiaren *Errimak bi oinetan* lana izango da ikusgai Lugaritz KEak antolatuta (Donostia Kultura).



## Dantza berriak, bertsoei jarriak

*Errimak bi oinetan* ikuskizunean, dantza eta bertsoa uztartzen dira. Bertso ariketa eta jokoak dantzara eramatea da emanaldi honen berezitasuna edo ezberdintasuna, eta horien bidez gaurkotasunari buruzko gogoetak plazaratzea, kantu ezagunei eta bertso sorta zahar eta berriei mugimendua emanez. Arratsaldeko 19:00etan izango da frontoian.

## Txartelak salgai, Ikon eta Txapelan

Larunbateko sardin-janerako eta igandeko bazkarirako txartelak salgai daude Ikon eta Txapelan. Sardinjanak 15€ balio du eta barrikote moduan izango da. Helduen bazkariak 28€ balio du eta umeenak 12€ (12 urtekoak barne). Bazkariko txartelak erosteko azken eguna urriak 17 izango da (astelehena).

## EGITARAUA

### URRIAK 21 OSTIRALA

**19:00** Herri Batzarra Itsas Aurren: 'Igeldoko Tokiko Entitate Txikia'.

### URRIAK 22 LARUNBATA

**19:00** Haatik dantza konpainiaren emanadia: 'Errimak bi oinetan'. Frontoian. *Lugaritz KEren eskutik (Donostia Kultura)*.

**20:30** Sardin-jana, Itsas Aurren. Txartelak IKOn eta Txapelan: 15€.

### URRIAK 23 IGANDEA

**10:00-14:00** Bertako produktuen azoka, plazan. (Euria egingo balu, frontoian).

**14:00** Bazkaria frontoian. Bertan, herriko aiton-amonak zaharrenak omenduko dira. Helduek 28€; umeek 12€.

*\*Txartelak erosteko azken eguna, urriak 17 astelehena.*

**18:00-20:00** Taloak plazan.

## OHARRA

Iritzi-artikuluak argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak abenduan eta martxoan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).